

## **1. LA LEGISLACIÓN AMBIENTAL A CUMPLIR EN LAS EMPRESAS**

Desde el área de medioambiente de ELA trabajamos para que las empresas cumplan con la legislación ambiental vigente. El futuro de la empresa y el mantenimiento del empleo están directamente relacionados con una actuación medio ambiental adecuada. La ley exige a determinadas empresas, que se dedican a actividades potencialmente contaminantes, que tengan la AAI (Autorización Ambiental Integrada). Esta autorización marca los niveles de emisiones y vertidos que deberá cumplir la empresa y en algunos casos exige algunas mejoras técnicas o tecnológicas. En ocasiones, los Departamentos de Medioambiente del Gobierno Vasco o del Gobierno de Navarra, que son los que tienen competencia en esta materia, conceden una AAI "condicionada", con lo que la empresa puede seguir trabajando pero se le exige que realice mejoras en un plazo determinado. Si después de este tiempo se ha cumplido con las mejoras exigidas se le concede la AAI definitiva, pero sino, la empresa empieza a tener problemas. La empresa pierde la Autoridad Ambiental Integrada, esto conlleva la retirada de la licencia de actividad por parte del ayuntamiento. Es decir, la actividad de la empresa se paraliza. Y aunque nos parezca increíble, hay alguna empresa que se ha aprovechado de esta situación para sacar

beneficio. Eso es lo que ha pasado en Inama.

Finsa, la propietaria de la planta de Muxika, quiere cerrarla para deslocalizar la actividad y una de las excusas que pone es la falta de la Autorización Ambiental Integrada y como consecuencia la falta del permiso de actividad. Lo más grave es que esta razón puede ser una causa objetiva en el expediente de extinción que han presentado. Pero la realidad es muy diferente. La empresa desde el año 2008 sabía las mejoras que debía hacer para tener la licencia en regla pero en vez de invertir 3 millones de euros para ello decidió repartir 22 millones de euros en beneficios. Es evidente que no cumplir la legislación ambiental ha sido una decisión empresarial.

Lo ocurrido en Inama nos reafirma en que en las empresas sujetas a la AAI debemos exigir que se cumpla con la legalidad ambiental vigente, porque cumplir con la misma también significa mantener el empleo. Es lo que ELA ha venido exigiendo a Inama estos últimos años.

## **2. HAZKUNDEA EDO DESAZKUNDEA?**

Urte asko dira gizartearen gehiegizko kontsumoa eta populazioaren etengabeko hazkundera bideraezinak direla dakigunetik. Hau jakinarazten ziguten lehen txostenak 70.hamarkadakoak dira. Orduan jada esaten zitzaigun planetak

bere mugak dituela baina hala ere baliabide naturalak ateratzen jarraitzen dugu. Ura, lurra eta airea kutsatu ditugu. Ekosistemak hondatu ditugu. Eta guzti hau planeta mugatu honetan ezingo dugu betirako egin. Duela 40 urte eginiko txosten haiek eta ondoren egin diren guztiek planeta emergentzia egoera batera iritsi dela erakusten digute. Munduko populazioaren zati oso txikiak, guk, dugun bizimailak planetaren erritmo naturala hankaz gora jarri du, guk eraman dugu emergentzi egoera horretara. Erritmo hau aldatu egin behar dugu.

Hazkundera ezin da mugagabea izan. Ezin dugun nahi beste eta edozein modutan produzitu, produkzio garbia izan behar da gure helburua. Kontsumoa ere gutxitu beharra daukagu herrialde industrializatuenetan, gehiegizko kontsumoak baliabideak xahutzea eta izugarritzko ingurumen kalteak ekartzen ditu. Zer esan dugun gehiegizko mugikortasunaz? Garraioa da berotegi efektuko gas gehien isurtzen duen sektorea eta hau aldatzeko ekonomia birlokalizatu egin behar dugu, zirkuitu laburragoak bultzatu behar dira. Ezin dugu onartu produkziarako eta kontsumorako produktu batek milaka kilometro egitea gure eskuetara iritsi baino aurretik.

Baina aldaketa hau ezin da gutxinaka egin jendearen borondatearen esku utziz. Gaur egun ditugun ingurumenarazo handienei hurrengo

urteetan egin beharko diegu aurre. Klima aldaketak eta erregai fosilen agortzeak hurrengo hamar edo hamabost urteetan aldaketa estruktural sakonak egitera behartzen gaituzte.

Baina arazoa ez da soilik ingurumen arazoa, krisia globala da: ekonomikoa, soziala eta ingurumenarena, eta krisi haiek batak besteari eragiten diote. Erregai fosilak eta baliabide naturalak agortzeak eta garestitzeak ekonomian eragin larriak izan ditu eta krisi ekonomikoak ekarri du krisi soziala. Beraz esan dezakegu krisi global baten aurrean gaudela.

Egoera larri honetatik irteteko alternatibak badaude, baina ez da kapitalismoaren bidetik etorriko, sistema hau izan baita krisia eragin duena. Geratzen zaigun aukera desazkundera da, ongi eginiko desazkundera. Herrialde industrializatuenok eragin duguna guk geldiarazi behar dugu, gure ekintzen ardura hartuta: kalteak eragiten ditugun herrialdeetan kalte horiek zuzendu, gutxiago kontsumitu, baliabide naturalak mantentzeko ahal den guztia berrerabili eta birziklatu, gure denbora librea eta ongizatea kontsumotik bereizi, indibidualismoa alde batera utzi, pertsonen arteko berdintasuna, zerbitzu publikoak garatu, fiskalitate justua, aberastasunaren banaketa, lanaren banaketa... Azken finean, gutxiagorekin ongi bizitzea da helburua. Hau da bide bakarra planetaren, pertsonen eta

ekonomiaren arteko oreka berreskuratzeko.

### 3. EXTRACCIÓN DE GAS EN ARABA

Ya llevamos unas semanas escuchando que en Araba se ha encontrado gas "no convencional" y que será la solución a la crisis energética.

Lo que se ha encontrado en Araba es un tipo de gas mucho más contaminante que el gas natural que se utiliza habitualmente. Este gas y su extracción tienen varios nombres: fracking, fractura hidráulica, gas pizarra, gas no convencional, shale gas,... Todos para dar nombre a una actividad peligrosa y a un combustible fósil, tan contaminante como el carbón.

La fractura hidráulica (comúnmente conocida en inglés como *fracking*) es la técnica que se utilizará para extraer el gas no convencional, que se encuentra a muchos metros bajo tierra. El procedimiento consiste en la inyección a presión de una mezcla de sustancias químicas bajo tierra, una mezcla secreta, con el objetivo de ensanchar los huecos en los que está incrustado el gas y así facilitar su extracción. La fractura hidráulica supone un grave riesgo para el medio ambiente y la salud humana. Evidencias constatadas a partir de la experiencia desarrollada en EEUU demuestran que la extracción de gas no convencional comporta un riesgo significativo de contaminación de las aguas subterráneas y de superficie.

Debido a la falta de certeza científica que existe sobre los impactos de emplear esta técnica, exigimos que se cumpla el Principio de Precaución recogido en la legislación europea, siguiendo el camino emprendido por otros países europeos como Francia y Países Bajos, que ya lo han prohibido. Dicho principio se vulnera al otorgarse los permisos para poner en marcha los pozos para la exploración sin evaluación de impacto ambiental previa, como se ha hecho por parte del Gobierno Vasco.

Ya se ha formado una plataforma en contra de esta actividad. Esta plataforma en la que participa ELA, se llama *Fracking Ez Araba* y esta trabajando para informar a la sociedad sobre las consecuencias de extraer este tipo de gas y pone todo su empeño en paralizar este proyecto tan perjudicial para todos y todas. ELA considera también que la explotación de gas no convencional, además de ser muy contaminante y peligrosa, es un paso atrás hacia el cambio de modelo energético que debe abandonar progresivamente la utilización de combustibles fósiles. Las inversiones y esfuerzos deben ir encaminados hacia un modelo energético sostenible basado en la reducción del consumo, la eficiencia energética y las energías renovables.

### 4. PASAIAKO PORTUA

Pasaiaiko Portuko Agintaritzak Ingurumen Iraunkortasun Txosten berria aurkeztu

zuen 2011ko urrian eta horren aurrean ELAk alegazioak aurkeztu ditu. Aurkezten dugun hirugarren alegazio txostena da.

Prozesu hau 2009an hasi zen eta oraindik Portuko Agintaritzak ez du amore eman, baina ezta guk ere. Beti salatu izan dugu jarduera ekonomikoa eta biziberritzea bateratzen dituzten alternatibak egon arren Portuko Agintaritzak kanpo portua kosta ala kosta nahi duela eraiki eta badia biziberritzeko alternatiba bakar bezala saltzean tematzen ari dela.

Ingurumen Ministerioak, portua eraikitzeke baimena eman behar duenak, 2010ean jakinarazi zuenez, kanpo portua eraikitzeak atzerazinezko inpaktuak eragingo ditu ingurumenean. Gainera ministerioaren esanetan proiektua ekonomikoki defendaezina da, beraz Portuko Agintaritzak alternatiba bideraezinenen ari da tematzen. Kanpo portua eraikitzeke beharra justifikatzeko etorkizuneko trafiko aurreikuspenak puzten ari dira. Aurkezten duten txosten bakoitzean beraien interesaren arabera aldatzen dituzte aurreikuspen hauek, hiritarrok konturatzen ez garelakoan, inozoak izango bagina bezala. 2011ko trafikoaren datuek erakusten dute portuaren jarduera gainbeheran doala. 18% gutxitu da trafikoa 2011n, 1991tik izan den daturik txarrena.

Badia barruko portuan hobekuntzak egitea posible da. Agintaritzak berak planteatu ditu txostenean, baina ez ditu burutzen ez zaizkiolako interesatzen. Inguruko

populazioari geratzen zaion ingurune natural bakarra kenduko diote eta badiako bizi kalitatea esaten duten bezala hobetu gabe, gaur egun dauden jarduera asko bertan geratuko baitira. Guzti hau diru publikoarekin noski, ze espero duten inbertsio pribaturik ez dela iritsiko publikoki onartu dute. Zergatik orduan diru publiko guzti hori (750 milio €tik gora) behar ez den eta kaltegarria den azpiegitura handi batean xahutu? Kanpo portuaren eraikuntzak gutxi batzuen interesei bakarrik erantzuten dietelako, gainontzeko gizartea, gehiengoa, berdin zaie.

Arrazoi hauengatik ELAk beharrezkoa ez den Pasaiako kanpo portua baztertzen jarraituko du, proiektua ez delako bateragarria Jaizkibelgo naturgune babestuekin, ekonomikoki ez delako bideragarria, eta inguruko jendearen bizi kalitateak okerrera egingo duelako.

## **5. IRAKURKETA GOMENDATUA:**

2011an MRA Fundazioak Esther Vivasek idatzirik "Elikadura Burujabetza: nekazaritza eta elikadura gure eskuetan" liburuxka argitaratu zuen. Esther Vivas militante antikapitalista ezaguna da eta urtarrilean Porto Alegreko Foro Sozialean parte hartu zuen. Hemen duzue bere blogean gaur egungo borroka garrantzitsuez egiten duen hausnarketa:

<http://esthervivas.wordpress.com/2012/01/30/de-la-economia-verde-ls-indignads-y-los-foros-sociales/>